

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

44. astea (2025eko urriaren 27tik azaroaren 2ra)


Gripe-birusaren zirkulazioak goranzko mantentzen du, baina, oraingoz, ez du eragin esangarririk AIA guztiak hartuta. Bronkiolitis eta COVID-19 tasak balio baxuetan mantentzen dira.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 340,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (350,5/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak gora egin du beste aste batez; bestalde, Bronkiolitisaren eta COVID-19ren tasek beheranzko joera aurkezten dute.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 67 lagin jagoleen % 68,7 baieztatu da, 17 gripe-birus 2 ABS eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik. 17 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 11,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,9/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA tasa eta larrialdietako gripe sindromearena intentsitate maila baxuan mantentzen dira; LMAko bronkiolitisarena (<2 urte), ordea, oinarritzko mailan aurkitzen da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 285 gripe-birus, 38 SARS-CoV-2 eta 17 ABS erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 340,2 kasukoa izan da (350,5/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 220,8/100.000 izan da Araban, 397,6/100.000 Bizkaian eta 304,2/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2555,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1856,9 eta 526,6 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 151,4 kasukoa izan da (153,5/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute aurreko astearekin alderatuta ESI gehienetan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 44. astea	Tasa 43. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	240,5	248,1	0,97 (0,87-1,08)
Arabar Errioxako ESI	382,1	407,6	0,94 (0,62-1,41)
Barakaldo-Sestaoko ESI	324,4	375,4	0,86 (0,76-0,99)
Barrualde-Galdakaoko ESI	468,1	481,3	0,97 (0,90-1,05)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	414,2	411,6	1,01 (0,94-1,08)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	365,9	386,9	0,95 (0,85-1,06)
Uribeko ESI	308,6	304,9	1,01 (0,91-1,13)
Bidasoako ESI	268,5	292,9	0,92 (0,76-1,11)
Debabarrenako ESI	345,4	357,9	0,96 (0,81-1,15)
Debagoienako ESI	244,9	246,5	0,99 (0,80-1,24)
Donostialdeako ESI	288,6	293,2	0,98 (0,90-1,07)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	333,6	340,8	0,98 (0,84-1,14)
Tolosaldeako ESI	319,7	361,4	0,88 (0,73-1,07)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasak 27,4 kasu 100.000 biztanleko balioraino egin du gora (21,5/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin eta 137,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (158,8/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 1,9 kasutaraino jaitsi da (3,6/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 67 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 68,7 baieztatu dira. 32 gripe-birus (16 AH3 y 16 AH1), 2 ABS eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira. 12 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasuna % 1,5ekoa izan da (% 0,0 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du berriro ere eta % 47,8an kokatu da (% 29,8 aurreko astean), eta ABSren positibotasuna % 3,0koa izan da (% 1,8 aurreko astean). Errinobirusak beheranzko joera mantentzen du, aste honetan positibotasuna % 17,9an kokatu delarik (% 29,8 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	44. astea		43. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	32	47,8	17	29,8	71	25,3
SARS-CoV-2	1	1,5	0	0,0	8	2,8
ABS	2	3,0	1	1,8	3	1,1
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	0	0,0	3	5,3	11	3,9
Adenobirus	1	1,5	1	1,8	2	0,7
Errinobirus	12	17,9	17	29,8	97	34,5
Urtaroko CoV	0	0,0	0	0,0	4	1,4
Enterobirus	0	0,0	2	3,5	3	1,1

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erartortzen direnak. AIAL tasa 11,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,9/100.000 aurreko astean), 10,9/100.000 gizonetan eta 11,0/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 33,8 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen eta 45-64 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 29,0 eta 5,5 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 2,0koa izan da 100.000 biztanleko (2,0/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,2koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,4 kasukoa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 4,1ean kokatu da (% 2,9 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 20,7an mantendu da aste honetan (% 21,3 aurreko astean) eta ABSrena % 3,7ra igo da (% 0,6 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna altu mantentzen da % 22,9an (% 27,9 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	44. astea		43. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	217	4,1	208	2,9	1044	6,1
Influenza	174	20,7	169	21,3	812	19,6
ABS	162	3,7	158	0,6	756	1,2

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbateteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.


Lehen mailako arretako AIAREN zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gaingitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.

**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**




Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zela, aste honetan intentsitate maila baxuan mantentzen delarik.

**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Azkenik, lehen mailako arretako 2 urtetik beherako bronkiolitis diagnostikoei dagokionez, tasa atalase epidemikoaren azpitik kokatzen da.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 285 gripe-birus, 38 SARS-CoV-2 eta 17 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 285 gripe-birusetatik, 231 A motakoak izan dira, 27 A(H3), 26 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2025/40 astetik 1028 detekzio erregistratu dira, 1025 (% 99,7) A motakoak eta 3 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 479 birusetatik, 243 (% 50,7) A(H3) eta 236 (% 49,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko azaroak 6

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza